

¡AMA MARIA!

UMILL ESKEİNTZEN DIZUT NERE LORIA.



¡Ama guztien Ama, gure maitia!
 ¡Amorior betia, manchik gabia!
 Zugana gatoz ¡grazien iturria!
 Ikusizazu zurea dala ¡Euskal-erria!
 ¡Zurea ¡bai! guk degun biotz guztia,
 Zurea lorearen usai ezia,
 Zurea choriaren kabi chikia,
 Zurea gure aurren erregu chia!
 ¿Ta Zu zein zera?.... ¡Gaitz da nik esatia!
 ¡Urikaldu gaísoen izar argia,
 Oen alargunaren laguntzallia,
 Beren alabachoen gordetzallia,
 Zenbait negar tristeren chukatzallia,
 Eriotzeko orduan chit pozgarria!
 ¡O zenbat dezun maite pekataria!
 ¡Zerura daramazu! ¿nola ordia?
 Esanaz— ¡atoz! ¡atoz! ¡nere semia!—
 ¡O Amacho, Amacho! ¡Ama maitia!
 Zugandik etorri zan ¡Jesus guria!
 Ezagunda nor zeran: ¡Abe Maria!....

ANTONIO ARZAC.

1882-ko Maiatzean.

